

## 1.1. Aitzinsolasa

*EHHA* egitasmo nagusiak XI. liburukia burutu du honekin. Lexikoaren zelai zabalean azkenengo atala egitasmo honetan. Askotarikoa, hala ere, biltzen dituen esparru semantikoei dagokienez. Barru-azalean iragartzen dira zeintzuk: ofizioak eta tresnak, itsasontzia eta honen edukiak, itsas arrantza, gizarte-bizitza eta, azkenez, pisu, neurri, diru eta koloreak. Esparru bakoitzeko kontzeptuen neurria halabeharrez mugatua izaki, arretaz hautatua izan zen inkesta ondu eta finkatu zen garaian, 80ko hamarkadaren hasieran, eta argitaratu diren emaitzak inkestaren arau emanak dira.

Liburuki bakoitzeko edukiek ez dute batasun tematiko osorik eskaintzen. Inkesta-zerrendari jarraituz antolaturiko banaketa eta osaera bai, ordea.

Aurreko liburuki paperezkoetan bezala, honetan ere lehen atal labur batean bildu dira Atlasaren ezaugarri orokorrak, beste inora jo gabe bertan erraz begiratzeko moduan, premia izanez gero. Galde-sorta, metodologia, inkesta-lekuak, berriemaileak, transkripzio-irizpideak eta beste. Argibide jakinak eta berraipatuak dira, baina ikerketa osoaren ardatz eta gogoan izan beharrekoak.

Tradizioko langintza batzuei eskainia da lehen parte, mardulena. Euron inguruan azaltzen diren hainbat hitz dira gure testu idatzi zahar eta klasikoetan urri edo batere ageri ez direnak; izan ere, beste gai batzuetan murgilduago egon da gure literatura idatzia. Eta horrexetan datza, besteak beste, corpus honen ekarri aberatsa. Bat edo batzuk aipa ditzagun.

Langintzon artean *errota* edo *eiherarena* dugu lehena. Lantegi eta langintza hau, aurrerago datozen beste gehiago bezala, ez da zeharo galdu oraindik zenbait lekutan, eta inkesta egin zeneko 80ko hamarkadan lekukotza zehatz eta fidagarrienak jaso ahal izan ziren euskararen eremu osoan. Aipagarri da *errota* izenaren aldamenean *bolu* izen zaharrak zenbait lekutan irau izana, toponimiaz haratago (Debagoiena). Edo *eihera* izenarekin *eiherazain* ofiziodunaren izenak Iparraldean duen indarra.

Ur-indarra ustiatzeko baliabideen izendapen esanguratsuak ditugu bestalde. *Presa* edo *naza* izenen aldamenean *osin* hitza azaltzea. Errotara ura daraman *kanal* delakoari dagozkion izen zaharrak, hala nola, *urbide/ubide*. Urari itxura egiten dion *konporta* delakoari esaten zaion *urate*, *ataka* izen gardenak.

Gari-artoak ehotzen diren gurpilak harrizkoak izaki, hitz-elkarketa bera zaindu izan dute nagusiki Pirinioz bi aldeetan, *errotarri* Hego eta *eiheraharri* Ipar. Garaua *irin* bihurtzeak euskara eremu osoan duen *eho* edo *eiho* aditz zaharra atzeraka joan den heinean garatu diren ordain-aditzen ugaria: *urundu*, *irindu*, *xehetu*, *txikitu*, *apurtu*, *birindu* eta *beste*.

*Arotz* sartaldea eta erdialdean edo *zurgin* ekialde eta Iparraldean deritzan lanbidea dugu hurrena, *zura* lantzen duen ofizioa, gaur ere indarrean den langintza eta lekukotza ziurren erakusle. Aipagarri da *zurgin* Otxandion, lautadako berbetan ere lekukotu izana. Langintza hau egiten den *banku* delakoa izendatzeko garatu diren hitz elkartuak; idatziz ugariak ez badira ere, hizkeran aberats dira: *mahai* osagaiaz lagundurik batetik (*arotz-mahai*, *zurgin-mahai*) eta *aulki* osagaiaz bestetik (*zurgin-aulki*, *maisturi-aulki*). *Lima* deritzan lanabesaz garatu diren *egurlima*, *zurlima*, *arotzlima* eta *limarraspa* ere aipagarri dira. *Kutxilla*, *arraspa* edo *plena* deritzan lanabesari hainbat lekutan deritzan *asa* edo *ase* izena ere deigarri da, bestalde. Mogel idazleak arotziako tresnen artean zerrendatzen duen *asia* izenak bizirik irautearen lekuko. *Mailu* lanabesak eremu mugatuagoan hartzen dituen *mailuka*, *martillu/martellu* eta are *matrallu/matrillu* aldaerek ere arreta eman digute. *Mailuka* izena, Mogelengan ongi lekukotua, haren erabileran ez da "mailu txikia", errementari eta olagizonen mailu sendoa baizik. Hizkera batzuetan, ordea, mailu txikiari deritza (Etxarri).

*Meatzaritza* lanbideaz deigarri egiten da *mea* hitzaren bakantzea eta *mina* maileguaren nagusitze sendoa, *miazulo* edo *miatze* aldaera zaharrak ere bakan lekukotu izan badira ere. *Errementari*, *errero* eta *arotz* ofiziodun-izenen banakuntza ere aipagarri da. Honetan ez gara luzatuko.

Corpusaren azken partean datorren neurri-izen desberdinen zerrendak ere jakin-min berezia sorrarazten du. Batetik, bizi dugun, baina batez ere aurretikoei ukan dituzten harreman, truke eta merkatari-harremanen balio-neurriak hurbiletik ezagutzeko bidea eskaintzen digulako. Eta, bigarrenik, joaniko mundu horren ezaugarri diren anitz izenek berriemaileen oroimenean nola josirik irau duen miresteko. Luze-zabalean *gizalan* edo *estatu*; pisuetan *imilaun*, *lakari*, *imina*, *ontza*, *erralde* edo *arroa*; luzeran *kana/barra*; diruetan *maraike* (*marabediko*), *dukat*, *ezkutu* eta beste gehiago.

Amaitzeko, Atlas honen balio nagusia ez da mugatzen bertan zerrendatu diren kontzeptuei dagozkien hitz eta aldaera ugariak ematera. Horien azpian datzan herri-jakintza mundu aberatsa ere hor ageri da. Liburukietan jasorik datorrena behinena baino ez da. Grabaturiko ordu luzeetan oraindik agertzeke dagoen altxorak hori eta askoz gehiago balio du, eta aldian-aldian Euskaltzaindia edukiok gizarteratzen joanen da.

*Euskararen Herri Hizkeren Atlas* honek, euskararen lehenaren ezaguera sendo eta ziur baten oinarriturik, gaur egungo eta geroko euskarak bizirik irauteko eta modernizaziorako zimendu egonkorra eskaintzen digu. Huraxe izan zen Azkueren gogoia. Horixe Mitxelenarena. Eta horretan dihardu Euskaltzaindiak, mende bete igaro ondoren, bere eginbideari tinko heldurik, gure aitzinekoen gogo eta borondateari jarraiki.

Adolfo Arejita,

EHHaren zuzendari akademikoa

2020-01-06